



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

### III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29  
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Trantsizio-ondorengo justizia  
Euskal Autonomia Erkidegoan

*Antton Maya*

68-74 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.09>



## Trantsizio-ondorengo justizia Euskal Autonomia Erkidegoan

Maya, Antton  
IE2IA – UPPA & EHU-UPV  
antton.maya@gmail.com

### *Laburpena*

Ikerketa honen helburua da gerla zibila eta frankismoaren biktimei buruz EAEn gaur aplikatzen diren legezko tresnak lantzea, trantsizio-ondorengo justiziaren baitan. Trantsizio demokratikotik bizpahiru hamarkada pasa eta, trantsiziozko justiziaren tresna batzuk (egiaren, justiziaren, erreparazioen eskubideak eta ez-errepikatzeko bermeak) aplikatuak dira, normalean trantsizio demokratikoaren garaian erabiltzen direnean giza eskubide urratze masiboak kudeatzeko. Honen ondorio bat da biktima berri batzuk agerrarazten dituela, biktimen inguruko egoera korapilatsu batean, non giza eskubide berriak aipatzen baitira. EAeko adibidea aztertuz, trantsizio-ondorengo justiziaren tresnen aplikazioaren desafio juridikoak identifikatzen ahal dira.

Hitz gakoak: Trantsiziozko justizia, trantsizio-ondorengo justizia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gerla zibila, frankismoa, ETA

### *Abstract*

*This research aims to analyze the legal instruments dedicated to the victims of the Spanish Civil War and the Franco regime in the Basque Autonomous Community (BAC), through the lens of the post-transitional justice (PTJ) concept. Indeed, several decades after the democratic transition, instruments of transitional justice (the right to truth, justice, reparation and guarantees of non-repetition) are still being applied, when they are traditionally only used during a democratic transition, in order to manage the massive violations of human rights. This causes the emergence of new victims in the BAC, within an already complex victim context, in which new human rights emerge. Through the example of the BAC, it is thus proposed to identify the legal challenges involved in the application of PTJ tools.*

*Key words: Transitional justice, Post-transitional justice, Basque Autonomous Community, Civil war, Franco regime, ETA*

## 1. Sarrera eta motibazioa

Trantsizio demokratiko bat gertatzen denean, politikariek eta gizarteak pasa diren giza eskubide urratze masiboak kudeatu behar dituzte, publikoki aipatuz edo isilduz. Problematika korapilatsu horrek edozein trantsizio demokratiko baten dilemak plantatzen ditu justizia eta bakearen artean, baita ere biktima eta hobendunen artean: Epaiketak antolatzen ahal ote dira hobendunen aurka? Biktimak ezagutu eta aitortzen ahal ote dira? Noski, erantzun horiek trantsizio demokratikoaren ezaugarrien arabera moldatzen dira (militarren indarra trantsizioari lotutako negoziaketan eta gizarte zibilaren antolakuntza adibidez).

Galdera horiei erantzuteko, trantsiziozko justiziaren kontzeptua garatu da, tresna alternatibo batzuk giza eskubide urratze masiboen kudeatzeko proposatuz. Tresna alternatiboak agertzen dira tresna klasikoak (epaiketak bat adibidez) ordezkatzen dituztelako, edo tresna klasikoei gehitzen zaizkielako. Esparru hori lau oinarritan garatzen da: egia eskubidea, justizia antolatzeko eskubidea, erreparazioak

lortzeko eskubidea, eta ez errepikatzeko bermeak garatzea (Joinet, 2002)<sup>1</sup>. Kontzeptu hori hainbat tokitan aplikatua izan da, bereziki Hego Amerikan eta Afrikan (Rettig komisioa Txilen, CONADEP Argentinan, Egia eta Berradiskidetzaren Batzordea Hego Afrikan), egokitze desberdin batzuei esker (Philippe, 2011). Progresiboki, printzipio horiek Nazio Batuen erreferentzia nagusiak bilakatu dira bakegintzari lotutako doktrinan<sup>2</sup>, baita ere nazioarteko zuzenbidean.

Espainiako trantsizio demokratikoa trantsiziozko justiziaren printzipioen beste muturrean garatu da, isiltasunean eta amnistiako legean oinarrituz<sup>3</sup>. Horregatik 30 urte itxaron dituzte gerla zibila eta frankismoaren biktimek Espainiako Oroimen Historikoaren Legea bozkaturia izan dadin 2007an, aitorten orokor baten eta erreparazio material bat jasotzeko<sup>4</sup>. Lege horrek trantsiziozko justiziaren instrumentu batzuk erabiltzen ditu, nahiz eta nahiko mugatua izan. Gainera, progresiboki beste inizatiba batzuk proposatu dira, bai Espainiar estatuan bai autonomia erkidego desberdinetan, Egia eta Berradiskidetzako komisioaren sorkuntza adibidez (Madrilgo kongresuan 2017ko abenduan)<sup>5</sup>.

Aldaketa horrek trantsizio-ondorengo justizia horren egoerari buruz hausnarketa batera gonbitatzen gaitu, bereziki zuzenbidearen arloan, batez ere EAEn, kontestu politikoarengatik, baita ere giza eskubide urratze desberdinengatik.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Trantsiziozko justiziaren arloa nahiko berezia da, arlo desberdin batzuk biltzen dituelako: zuzenbidea, zientzia politikoa, soziologia, psikologia, historia. Bestalde, arlo interesgarria da ez delako teoria bat bezala sortu, baizik eta trantsizio demokratikoen praktiketatik kontzeptualizatu.

Espainia eta EAeko gerla zibila eta frankismoaren biktimeen kasuan, trantsiziozko justiziaren arloaren egoeraren hiru ezaugarri nagusi agerrarazten ahal dira:

1. Trantsiziozko justiziaren kontzeptua literatura hedatu batean aipatua da, baina Espainia eta EAeko kasuan ez da operatiboa ezta eraginkorra, lurralde horietan trantsiziozko justiziaren instrumentuak trantsizio demokratikoa pasa eta aplikatuak direlako. Gainera, trantsizio-ondorengo justizia aipatzen denean, epaiketen antolaketak baizik ez dira aipatzen (Collins, 2011).
2. Espainiari buruzko literatura akademikoan “oroimen historikoa”ren gaia askotan aipatua da Espainia lurralde nahiko homogeneoa balitz bezala. Horregatik, literatura hori Espainiako Oroimen Historikoaren Legean oinarritzen da dinamika zentrifugo bat mantenduz, nahiz eta legezko konplexutasuna eta dibertsitatea integratu egin behar den.
3. Literatura horrek “memoria historikoa” etiketa ematen die hainbat instrumentu eta lege desberdinei, memoria kontzeptua gainditzen dituenak, eta progresiboki eztabaida bat sortu da jakiteko trantsiziozko instrumentuak zirenez, baita ere jakiteko trantsiziozko ala trantsizio ondorengo instrumentuak direnez (Aguilar, 2008). Eztabaida horren erdian, argiki agertu da Espainia trantsiziozko justiziaren kasu ezohikoa dela (Tamarit Sumalla, 2012).

<sup>1</sup> Trantsiziozko justiziaren printzipioei buruz, irakurri: Orentlicher, D. (2005), *Rapport Diane Orentlicher pour la Commission des droits de l'homme* UN Doc. E/CN.4/2005/102/Add.1

<sup>2</sup> Adibidez, NBEan bozeramailea bat sortu zen 2011an «egia, justizia, erreparazioak eta ez-errepikatzeko bermeen sustatzearentzat».

<sup>3</sup> Isiltasuna eta amnistia aipatzen direnean, helburua ez da trantsizioaren modalitateak «kriminizatzea», baina sinpleki aztertzea nola garatu den epe laburrean, kontestu berezi bati begira.

<sup>4</sup> 2007 arte onarpen partzialak eta bereziki materialak antolatuak izan ziren.

<sup>5</sup> *Proposición de Ley para la reforma de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura. Presentada por el Grupo Parlamentario Socialista.*

Trantsiziozko justiziaren egoera hori azpimarratu eta, hainbat helburu ditu ikerketa honek:

1. “Oroimen historikoa”ri buruzko lege desberdinak lantzen dira, Espainia barruko desberdintasun juridikoak agerrarazteko (De la Cuesta eta Odriozola, 2018), fragmentazio geografiko-juridiko larriaren azpimarratzeko autonomia erkidegoen artean. Bestalde, ezinbestekoa da analisi hau legegintzari ez mugatzea: administrazio eta erakunde publikoek aplikatzen dituzten politikak ere aztertu behar dira.
2. Bestalde, lan honek identifikatzen ditu giza eskubideen arloan izan diren aldaketak. Horrekin, ikusiko dugu trantsizio-ondorengo justiziaren tresnak hunkitzen direnez. Horregatik, Espainiako trantsizio demokratikoaren modalitateak landuko dira, baita ere giza eskubideen aldaketak 1978tik 2018 arte, eta bereziki ETaren amaiera. Halaber, EAEko berezitasun politikoa azalduko da legegintza berezi bat agerrarazteko, trantsizio-ondorengo instrumentuak garatzen dituenak.
3. Ikerketa honen azken helburura da trantsizio-ondorengo justiziaren instrumentuen aplikazioari buruzko analisi orokor bat proposatzea, EAE eta Espainiaren adibideei esker kontzeptua sistematizatzea. Horrela, tresna horien berezitasunak eta parametroak agerraraziko dira, baita ere ondorioak.

### 3. Ikerketaren muina

Ikerketa honi esker, argiki agertzen da gerla zibila eta frankismoaren biktimak ez direla era berean aipatzen eta kudeatzen autonomia erkidego desberdinetan. Alabaina, autonomia erkidego batzuen legeetan Egia batzordeak<sup>6</sup> eta epaiketak antolatzeke paradak<sup>7</sup> aipatuak dira, eta *forensic turn-delakoa* materializatzen da (Garibian, 2015). Kronologia dibertsitate hortan, EAEko kasua aintzinatukoena agertzen da, bai denboran (instituzio publikoak inplikatu ziren 2000 urtean hobien kokapenak ikertuz)<sup>8</sup>, bai existitzen diren plan desberdinetan<sup>9</sup> eta instituzioetan (Gogora Institutua adibidez)<sup>10</sup>.

Gainera agertzen da trantsizio-ondorengo justiziar buruzko ikerketa ez dela legegintzan bakarrik oinarritu behar. Ezinbestekoa da gobernu eta administrazio publikoek garatzen dituzten politikak, eta gizarte zibilak hartzen dituen inizatibak giza eskubideen urratzei buruz integratzea. Dinamika hori askoz garrantzitsuagoa da Espainia eta EAEko kasuetan trantsizio-ondorengo instrumentuak ez baitira epaiketa batzuekin materializatzen ahal, nahiz eta saiakerak izan (Garzon epailearen kasua eta kompetentzia unibertsalaren erabilerak azpimarratzen duten bezala).

Bestalde, EAEko legegintzaren analisiak erakusten du trantsizio-ondorengo justiziaren instrumentuak era berezi batean aplikatzen direla lurralde horretan. Alabaina, desberdintasun hori kronologia berezi batean kokatzen da: zatiketa bat egina da “memoria historikoa” eta “iragan-hurbileko

<sup>6</sup> *Ley 2/2017, de 28 de marzo, de Memoria Histórica y Democrática de Andalucía*. Bizkitartean, Andaluziako adibidea kontrastatzen ahal litaike azken hauteskundeeri begira, non VOX alderdiaren emaitzek lortuko legeak mehatxatzen dituen.

<sup>7</sup> Adibidez EAEko legegintzak hilobai komunetan aurkitzen diren elementuak froga batzu bezala kontsideratzen ditu, auzitegiatarat igorri behar direnak, gizakoaren aurkako krimen batzuen frogak izaiten ahal direlaketz.

<sup>8</sup> Eusko Jaurlarizta hasi zen hortan lan egiten hitzarmen bateri esker Aranzadi zientzia elkartearekin.

Berezitasun hori argiki agertzen da Francisco Ferrandiz eta Marije Hristova-ren txostenan: Ferrándiz, F; Hristova, M. (2018), *Informe sobre las políticas públicas de Memoria Histórica en Euskadi a petición del Parlamento Vasco*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

<sup>9</sup> 2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzekoa, *Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko*.

<sup>10</sup> 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, *Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa*

memoria”ren artean. Horregatik biktima mota batzuentzat (1960 eta 1978 artekoak bereziki<sup>11</sup> baina berantagokoak ere bai<sup>12</sup>), ebaluazio komisioak sortzen dira, nahiz eta oztopo politikoak eta juridikoak badiren Espainiako Korte konstituzionalaren eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aldetik. Kontestu horretan aplikatzen diren instrumentuak trantsizio-ondorengo justizia gradualako instrumentuak bezala identifikatzen dira.

Desberdintasun eta kronologia berezi horiek ulertu behar dira giza eskubide urratze bereziak izan direlako lurralde horretan, eta bereziki biktima “trans-trantsizionalak” izan direlako: ETaren terrorismoa, eta diktadura motari lotutako terrorismoa: GALena, eta tortura kasuak. Gaur egun, giza eskubide urratze horiek lehentasuna dute agenda politikoan baita ere legegintzan, eta batzuek besteek baina gehiago. Noski, berezitasun hori ulergarria da alderdi politiko desberdinen (EAJ, EHBildu, Podemos, Euskadiko Ezkerra, Alderdi Popularra) interpretazioari begira, adibidez euskal gatazkari buruzko eztaibadak azpimarratzen duen bezala. Kontestu horretan ezinbestekoa da kontutan hartzea ETaren amaiera, “memoriaren gatazka”, “errelato desberdinen” konfrontazioa agerrarazten duelako. Egoera horretan, biktima desberdin batzuek eskubide berdinak eskatzen dituzte: egia, justizia eta erreparazioa. Biktimen kontuan garrantzitsua da, adibidez, ETAko biktimen parte batek eskabideak dituela, ETA desagertu izan arren (esate baterako ebatzi ez diren atentatuei buruz).

Azkenik, EAEn ikusten dena da giza eskubide berri batzuen agertzea esparru berri batzuei lotuak zaizkienak: errefuxiatuen krisia, dibertsitatearen kudeaketa (erlijio mailan adibidez). Aldaketa progresibo horrek jadanik izaten diren instituzioen egokitzea sortzen du, bereziki gobernuaren agenda aldatzean.

#### 4. Ondorioak

EAEko adibidearekin, trantsizio-ondorengo justiziarri buruz hainbat konklusio eta ondorio ikusten ahal dira.

Lehenik, ikerketaren ondorio nagusia instrumentu horien aplikazioaren zailtasunen identifikazioa litzateke. Zailtasun horiek materialak izaten ahal dira: frogen desagertzea (adibidez hilketak bat duela 80 urte gertatu denean), hobendunen heriotza, biktimen heriotza, ikerketen kostu ekonomikoa. Baina zailtasun horiek intelektualak izan daitezke ere, trantsiziozko justiziaren tresnen azterketa egin delako literatura berezi batean, *boomerang effect* baten barne. Adibidez, Sandrine Lefranc<sup>13</sup> edo David Rieff-ek<sup>14</sup> diote holako politikek etorkizun mugatua izanen dutela. Azpimarratzen dute indar asko egiten dela mugatuak diren emaitza batzuentzat. Horregatik, arazo horiek agertzen baldin badira trantsiziozko justiziaren instrumentuentzat, potoloago agertzen dira trantsizio-ondorengo justiziaren instrumentuentzat.

Bestalde, trantsizio demokratikotik 30 urtez biktimaren figura (sozialki, politikoki baita ere legegintzan) asko aldatu da, eta garaien arabera biktima desberdinak zentralak bilakatzen dira (Gatti, 2017). Horregatik trantsizio-ondorengo instrumentuak aplikatzeak suposatzen du biktimei lotutako “geopolitika” aldatzea biktima berri batzuk integratuz. Aldaketa hori kokatu behar da ere giza eskubide berri batzuen integrazioarekin agenda publikoan.

Azkenik, ikerketa honek erakustera ematen du trantsiziozko instrumentuak moldatu behar direla trantsizio-ondorengo kontestu batean integratzeko. Horrek inplikitzen du instrumentu horiek

<sup>11</sup> 426/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatzen duena

<sup>12</sup> 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa,

<sup>13</sup> Gensburger, S ; Lefranc, S. (2017), *À quoi servent les politiques de mémoire ?*, Presses de Sciences Po.


<sup>14</sup> David Rieff-ek oroimenari lotuko politiken kritika nahiko bortitza egiten du, trantsizio-ondorengo justiziaren instrumentuari aplikatzen ahal direnak.

gradualak<sup>15</sup> izan behar direla oztopo juridiko, sozial eta politikoak agertzen ahal direlako, eta forma berezi batzuetan oinarritu behar direla, *soft power* kontzeptuari lotutako instrumentuekin (testigantzak, hezkuntza, erreparazio mugatuak).

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunean ikusten den posibilitate nagusia da esparru berri horren kontzeptualizazioa eta sistemizazioa. Helburua litzateke azpimarratzea zein ondorio sistemiko eduki dezakeen trantsizio-ondorengo justiziaren instrumentuen aplikazioak zuzenbidean, autoritate publikoetan, eta gizartean. Adibidez, interesgarria litzateke neurtzea nola holako neurriek estatuaren protagonismoa berpizten duten giza eskubideen bermatzaile gisa.

Ikerketa honen etorkizunerako beste helburu bat litzateke trantsizio-ondorengo justiziaren printzipio politiko eta juridiko orokorren azpimarratzea, mapa bati esker adibidez<sup>16</sup>:



Mapa-eraikitze horri esker sistematizazio gradu bat lortzen ahal genuke, eta zergatik ez beste trantsizio demokratikoei aplikatu. Bestalde, ikerketa horrekin eta bereziki zailtasunak eta oztopoak kontutan hartuta, posible litzateke identifikatzea zein izaten ahal diren alternatiba konkretuak ez-errepikatzen bermeen segurtatzeko, *soft power*-eko trantsizio-ondorengo justizia baten bidez, testigantzen boterea, hezkuntzaren ahalmena, eta eskala lokalaren abantailak erabiltzen dituenak. Azkenean, gobernantzari eta zuzenbide estatuari lotutako modalitateak eztabaida daitezke ikerketa honi esker, eta zergatik ez demokraziaren bizkortasuna.

<sup>15</sup> « graduala » hitza erabiltzen da kasu hortan «progresibotasunaren» aipatzeko. Kontzeptu hori Patricia Romero Cortes-en tesian aurkitzen da. Irakurtzekoa: Romero Cortes, P. (2017), *La construction d'une justice transitionnelle par degré : Le cas colombien*, Institut Universitaire Varenne.

<sup>16</sup> Iturria : egileak sortua

## 6. Erreferentziak

### 6.1. Trantsizio-ondorengo justizia eta Trantsizioko justizia

- Aguilar, P. (2008), "Transitional or Post-transitional Justice? Recent Developments in the Spanish Case", *South European Society and Politics*, 13 (2), 417 – 433.
- Barahona de Brito, A; Gonzalez-Enriquez, C eta Aguilar, P (2001), *The Politics of Memory. Transitional Justice in Democratizing Societies*, Oxford University Press, 1-39.
- Collins, C (2010), *Post-Transitional Justice: Human Rights Trials in Chile and El Salvador*, Pennsylvania State University Press.
- Crettol, M; La Rosa, A-M. (2006), « Les personnes portées disparues et la justice transitionnelle : le droit de savoir et la lutte contre l'impunité », *International Review of the Red Cross*.
- Freeman, M ; Marotina, D. (2007), « Qu'est-ce que la justice transitionnelle », *International Center for Transitional Justice*.
- Garibian, S. (2014), « Vérité vs. Impunité : la justice (post-)transitionnelle en Argentine et le human rights turn », in: Andrieu, K; Lauvau, G. (arg.), *Quelle justice pour les peuples en transition ? Pacifier, démocratiser, réconcilier*, Presses Universitaires de la Sorbonne.
- Gensburger, S ; Lefranc, S. (2017), *À quoi servent les politiques de mémoire ?*, Presses de Sciences Po.
- International Human Rights Law Institute (2007), "The Chicago Principles on post-conflict justice", Chicago.
- Joinet, L. (2002, zuz), *Lutter contre l'impunité*, La Découverte.
- Orentlicher, D. (2005), *Rapport Diane Orentlicher pour la Commission des droits de l'homme UN Doc. E/CN.4/2005/102/Add.1*
- Philippe, X. (2013, zuz), *La justice face aux réparations des préjudices de l'Histoire, approche internationale et comparée*, Transition et Justice, Institut Universitaire Varenne
- Picard, K. (2017), *La responsabilité de l'Etat du fait du préjudice historique*, doktoretzako tesia, Université Aix-Marseille.
- Raimundo, P. (2012), *Post-Transitional Justice? Spain, Poland and Portugal compared*, EUI PhD theses; Department of Political and Social Sciences.
- Ricoeur, P. (2003), *La mémoire, l'histoire, l'oubli*, Seuil.
- Rieff, D. (2016), *In praise of forgetting, Historical memory and its limits*, Yale University Press.
- Tamarit Sumalla, J. (2012), "Los limites de la justicia transicional penal: la experiencia del caso español", *Política criminal*, 7 (13), 74 - 93.

### 6.2. EAeko kasua

- 426/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatzen duena
- 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa,
- 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa.
- Baby, S. (2012), *Le mythe de la transition pacifique, Violence et politique en Espagne (1975-1982)*, Casa de Velázquez.
- Beristain, C. (2016, zuz), *Saliendo del olvido, Informe de la Comisión de Valoración sobre víctimas de violaciones de derechos humanos y otros sufrimientos injustos producidos en un contexto de violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco 1960-1978*, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza.
- De Greiff, P. (2014), *Informe del Relator Especial sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, Misión a España*, Naciones Unidas.
- De la Cuesta, J-L; Odriozola, M. (2018), "Marco normativo de la memoria histórica en España: legislación estatal y autonómica", *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 20 (08), 1-38.
- Eusko Jaurlaritza (2013), *2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana. Gizartea elkartzea helburu*, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2015), *2015-2020 aldirako EAeko Plana, hobien kokapena ikertzekoa*, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko.
- Eusko Jaurlaritza (2017), *2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gizartea elkartzea helburu, enpatiarene aldeko hautua*, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.

- Etxeberria, F; Martin, C eta Pego, L (2017), *Informe final - Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País vasco entre 1960-2014. Conclusiones y recomendaciones*, Kriminologiaren Euskal Institutua, Eusko Jaurlaritza.
- Gatti, G (2017, zuz), *Un mundo de víctimas*, Anthropos.
- Landa Gorostiza, J-M (2014, zuz), *Justice transitionnelle : propositions pour le Pays Basque*, Institut Universitaire Varenne, Collection Transition & Justice.
- Landa Gorostiza, J-M (2018), «Políticas de víctimas de la violencia política en España y el País Vasco: Una reflexión a la luz del Holocausto», *Revista General de Derecho Penal*, 29.
- Lopez Romo, R. (2018), *Memorias del terrorismo en España*, Centro Memorial de las víctimas del terrorismo, Catarata

## 7. Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet nire ikerketa zentroi eta nire tesiaren zuzendariei: Jean-Pierre Massias, Jon-Mirena Landa eta Olivier Lecucq.